

BEDERATZIGARREN GAIA: LEGEA ITURBURU GISA. LEGE ARRUNTA EDO OHIKOA ETA LEGEAREN MOTA BEREZIAK

Ikusi dugu konstituzioa arau nagusia izanik legeen baliozkotasuna mugatzen duela. Konstituzioaren babesle nagusia konstituzio auzitegia.

Epaileak legearen mende zeuden eta hauen egitea zen legeetan esaten zena betearaztea horregatik legezkotasunaren epaileak izan dira Europakoak, aldiz Estatu Batuetan konstituzionaltasun epaileak eta legezkotasun epaileak izan dira. Hemendik dator legezkotasun printzipioa nola epaileak betearazi behar zutena legea zen, sistema anglosasoietan *“rule of law”*, hau ez da bakarrik legearen inperioa parlamentuak sortzen dituen arauen inguruan baizik eta arau guztien inguruan; gure legezkotasun printzipioa oso zentsu murriztuan ulertzen zen lehen baina konstituzioari baliozkotasun juridikoa eman zitzaionetik aurrera honen esanahia zabaltzeko beharra dugu, horregatik ere konstituziotasun printzipioa sortua izan da, konstituzioa izan da arau guztien baliozkotasuna mugatu duen araua.

9.1. LEGEA, ZUZENBIDEZKO ESTATUAN

- Zuzenbidezko Estatuak Europan eta Parlamentuaren gailentasuna eta horrekin batera legearen gailentasuna eta lege ahalguztiduna.
- Bakantasan parlamentarioa eta monarkia-bikantasanak legea, iturburu gisa, itxuratzean duten eragina → lege materiala (legea, edukiaren arabera) eta lege formala (legea, moldearen arabera).
- Egungo Zuzenbidezko Estatuan → Legea, Parlamentuak sortzen duen iturburua dugu.
- Legea, aniztasuna eta parte hartzea bideratzeko oinarritzko baliabidea.
- Legea, Zuzenbideko iturburu *arrunten* edo *ohikoen* artean, garrantzizkoena edo erabakigarriena da; antolamenduaren ardatz nagusia.

Konstituzioak aginteen jarduerarako eremu lokabea mugatzen du, legeak erabiltzen eta murrizten ohi duena.

9.2. LEGEA ETA KONSTITUZIOA

- Legea, Konstituzioaren gailentasuna eta arau-hierarkia
 - Legeak konstituziotasun blokea bete behar du zilegi izateko
 - Legea, iturburu mugatua da, ez ahalguztiduna

- Legearen aldakuntzak eta lege moten aniztea

- Lege-kontzeptu bakarraren ezintasuna
- Konstituzioak eratzen dituen horrenbeste lege mota

- Legea, Konstituzioaren aurrean mendeko iturburua dugu, baina gai ukaturik ez duena → iturburu orokorra da.

- Legeari eskatu ohi zaizkion ezaugarriak:

- Arautze orokorra eta abstraktua egitea
- Gizartearen arazo oinarrizkoak arautu behar zituen iturburua

- Legearen ezaugarriak:

- Parlamentuak sortzen duen iturburua
- Aniztasuna eta parte hartzea bideratzen duen iturburua

- Legearen maila eta legearen indarra.

- Legeak mendeko iturburuekin (araudi edo erregelamenduekin) dituen loturak.

Konstituzioak eremu zabal bat zedarritzen du, eremu horren barnean hainbat aukera politiko posible dira eta parlamentuan ordezkariak duten alderdiei dagokie konstituzioak mugatzen duen eremu horren barnean posibleak diren artean hautaketa politikoak egitea. Guztiz bestelakoa da legegileak arau erregelamentarioen artean egiten duena, konstituzioa eta erregelamenduen artean hierarkia dago, konstituzioaren inguruan legegileak hautaketa zehatza egitean hainbat baldintzatzen du beste guztia, aldiz eremu erregelamentarioetan askotan ahalmen ugari gelditzen dira baina normalean hori askoz mugatua da. Kontuan hartu behar dugu ere, gaur egun, legearen ezaugarriak zeintzuk diren, tradizioaren arabera garai liberalean bereziki esaten zen legeak ezaugarri batzuk bete behar zituela: araubide orokorra (ez zehatza) eta abstraktua; horrek esan nahi du ezin zuela izan hartzaile zehatzik definituta legean bertan baizik eta helburu orokorrak izan behar zituela gizartearen zati batean fijatu barik.

Gaur egun legea definitzen duten ezaugarriak kontzeptu formal hutsak dira, hain zuzen ere, legea da parlamentuak sortu duen araua edukia edozein izanda ere, horregatik gaur egun daude hartzaile zehatzak duten legeak, baina parlamentuak onartu badu legea izango da. Legeak gaur egun bermatzen duen bakarra jendearen aurreko prozedura garden baten bidez gorpuztuko duela da. Gizarteak ez du posibilitaterik dekretua egiten den arabera inolako jarrerarik adierazteko.

9.3. LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOA ETA LEGE PREMIA (EDO LEGE-ERRESERBA)

Garai liberalean teorikoek esaten zuten legea beharrezkoa zela edozein araubide orokorra egin nahi zenean eta erregelamendu bat soilik posiblea zela legeak eskatzen zionean gobernuari (teorian hori defendatzen zen garai liberalean nahiz eta gauzak praktikan horrela ez egin).

Gaur egun, legea ezinbestekoa da bakar bakarrik konstituzioak hala eskatzen duenean (lege erreserba bat eskatzen edo ezartzen duenean; Espainiar Konstituzioaren 32.2.artikulua adibidez). Lege erreserba da noiz konstituzioak gai edo materia bat arautzeko ezinbestez legea eskatzen duenean; horrek esan nahi du bi kasu dugula konstituzioa aurrean izanik: non konstituzioak ezartzen du legea ezinbestekoa dela eta non konstituzioak ez duen ezartzen legea ezinbestekoa dela. Legea ezinbestekoa da konstituzioak lege erreserba ezartzen duenean hau da, konstituzioak esaten duenean gai edo materia bat legearen bidez arautu behar dela. Ondorioz konstituzioak lege erreserba ezartzen ez duenean posiblea da legerik izan gabe ere gai bat erregelamenduen bidez arautua izatea baina horrek ez du esan nahi legeak eremu mugaturik duenik **gure konstituzio antolamenduan legeak, ez du eremu mugaturik horrek esan nahi du legegileak nahi duen eremu guztietan legeak sor ditzakeela hau da, ezinbeste erabili behar dela legea lege erreserba bat dagoenean, baina nahiz eta legea ezinbestekoa izan lege erreserbarik ez dagoen eremuetan legea beti posiblea da.** Beraz legea edozein eremuan posiblea den neurrian, legerik baldin badago ezinbestekoa izateagatik edo ezinbestekoa izan gabe parlamentua horrela erabaki duelako, legea dagoenean legea beti du lehentasuna beste arau guztien aurrean salbu konstituzioaren aurrean.

Sistema presidentzialistetan aldiz legeak bai du eremu mugatua, konstituzioak zuzenean erreserbatzen dio eskumen batzuk presidenteari eta horietan parlamentuak ezin du legezko araubiderik sortu, hori esaten zaio erreserba erregelamentarioa dagoela, sistema parlamentarioetan ezin da horrelakorik gertatu.

- Legezkotasun printzipioaren ohiko esangura
- Legearen nagusitasuna eta araudiek omen duten legearen beharra
- Lege-premiak (edo lege erreserbak) duen esangura → legearen ezinbesteko beharra erreserbaz babesturik dagoen gaia, bere mamian gutxienez, arautzeko, legegintzazko prozeduraren bermea eta erregelamenduak gaia arautu ahal izateko dituen mugak, legearen premia baitu. Araudia, iturburu osagarria da.
- Konstituzioak lege erreserbak ezartzeak, alderantziz duen esangurak, legearen premia dago, bakarrik, erreserbak ezartzen direnean, baina ez erreserbetatik kanpo.
- **Legezkotasun printzipioak** → legea edozein gaian sortu ahal izatea → legeak ez du eremu ukaturik
 - ⇒ legea beti izan liteke eta dagoenean lehentasuna du
- Legezkotasun printzipioak, Zuzenbidearen aurreko mendekotasuna adierazten du, orokorrean. Legezkotasun printzipioak, Konstituziotasun printzipioa adierazten du, orokorrean

9.4. LEGE ORGANIKOA

Lege organikoa lege berezia da, horregatik behar dugu berezitasun irizpidea. Berezitasun irizpidea beharrezkoa da maila berdinean mota desberdineko legeak konstituzioak ezartzen dituztenean jakiteko zein eremuan aplikatu behar den lege berezia eta zeintzutan ez. Zein gaiak arautzeko beharrezkoa den lege organikoa (hau da, gai horiek ezinbestez lege organikoz arautuak izan behar dira eta horren eremutik kanpo ezin da onartua izan, lege organikoa soilik erabili ahal da konstituzioak ezartzen dituen eremuetan) eta kongresuan azken bozketan gehiago absolutuz onartua izan behar da (hemen arazo bat sortzen da, lege organiko batek gehiago berezi bat eskatzen duenez hau izozten da saila izateko honen moldaketa, kongresuan lege absolutua dagoenean alderdi horrek bere aldetik atera ditzake nahi dituen lege organiko guztiak, juridikoki salbuespenak direnak era murriztuan interpretatuak izan behar dira). Lege organikoa soilik erabiliak izan dezakete oinarrizko eskubideen edukia garatzeko, autonomia estatutuak egiteko eta hauteskunde araubide orokorra onesteko eta konstituzioan aurreikusitako gainerakoetan (Espainiar Konstituzioaren 81.artikulua). Horren inguruan arazo bat izan da, hasieran batzuk interpretatu zutela lege organikoa legegileak zuen baliabide bat zela nahi zuzenean erabiltzeko. Lege organikoa soilik erabili dezake konstituzioak zehazki eskatzen duenean.

- Lege moten aniztasuna eta berezitasun-irizpidea
 - Lege organikoa, lege berezi gisa
- Lege organikoaren ezaugarriak (Espainiar Konstituzioaren 81.artikuluaren)
- Lege organikoaren materia-ezaugarriak → eremu material mugatua edo zedarritua
- **Lege organikoak dira:**
 - a) oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen garatzeari dagozkionak;
 - b) Autonomia Estatutuak eta hauteskunde araubide orokorra onesten dituztenak;
 - c) Konstituzioan zehazten diren gainerakoak.
- Lege organikoaren erari dagozkion ezaugarriak: prozedura berezitasunak eta baldintzak
 - Lege organikoen onespak, aldakuntzak eta indargabetzeak Kongresuaren erabateko gehiago eskatzen du, nahitaez, egitasmoaren osoko azken bozketan
- Lege Organikoaren berezitasun esangura: berezitasun irizpidearen eragina; eremu babestuak lege organikoaren bidez baizik ezin dira arautu; lege organikoak bakarrik sor daitezke lege molde horri dagozkion eremu babestuetan.
- Lege organikoari erreserbatutako eremuaren interpretazioa
- Lege organikoari erreserbatutako eremuak eta horiekin lotutako eremuen arazoa → salbuespenak interpretazio murriztua eskatzen du.

- Lege organikoaren eta lege arruntaren arteko loturen azua

- Bataren eta besteren hierarkia maila berbera: lege maila.
- Berezitasun irizpidearen eragina eta ondorioak.
 - Lege organikoari dagozkion eremuetan lege arrunta baztertua gelditzen da, baina ez guztiz, organikoaren osagarri izan daitekeelako, baina ez ordezeko (ezin du organikoari dagokiona bete)
- Lege organikoaren berezitasunak araubidearen maila finkatzen du, lege organikoaren bidez arautua dagoena aldatzeko edo indargabetzeko molde bereko iturburua erabili behar baita.
- Finkatze horrek berezitasunak ditu, ez baita mailaren finkatzea → KALOREn 28.2 artikulua interpretazioa (Konstituziotasun eza lege organikoan zehaztutakoaren aurkakoa "horren edukia edozein izanik ere").

- Lege organikoaren berezitasuna salbuespen gisa → ordezkate-demokraziaren oinarria eta gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko harremanak: gehiengo arrunta oinarri orokor gisa.

9.5. BESTELAKO LEGE BEREZIAK (EZ IKASI)

- Lege organikoa da lege mota berezi bakarra Espainiako Konstituzioan? Ez, bestelako lege mota bereziak ere daude. Adibidez:

- Autonomia Estatutuak: lege organikoak izateaz gain, berezko berezitasunak dituztenak (Espainiar konstituzioaren 151.artikuluak, 147 artikuluekin lotuta)
- Espainiar Konstituzioaren 150.artikuluak ezartzen diren lege motak: oinarri-legea, eskumenak eskuordetzeko eta besterentzeko lege organikoa, harmonizazio legea.

9.6. PARLAMENTUKO ARAUDIA (EZ IKASI)

- Parlamentuko nagusitasuna eta berezko arauak sortzeko gaitasuna.
- *Interna corporis acta* eta auzitegien kontrol eza.
- Parlamentuko Araudiak eta Konstituzio arau-emailea → legegintza-prozedura arautzea dagokion iturburua
- Parlamentuko Araudian zehaztutako arauen kanpo-eragina
- Gorte Nagusietako Araudiak: Espainiar Konstituzioaren 72.artikuluak
- . Prozedurari dagozkion berezitasunak:
 - Ganbara bakoitzak onartzen du bere Araudia eta Gorte Nagusietakoa, bilkura bateratuan
 - Gehiengoari dagokion berezitasuna: erabateko gehiengoa osoko azken bozketan

- . Konstituzioarekin lotura zuzena. Lege indarra duen iturburua
- Parlamentuko Araudiak, konstituziotasuna-blokearen zati dira.
 - Konstituziotasun kontrola (KALOren 27.2.artikuluaren c) eta f) letrak).
 - Sortzeari buruzko araua → horren arabera sortutako gainerako legeen konstituziotasun neurria.

9.7. ARAUDIA, ITURBURU GISA. ARAUDIAREN BEREZKO EREMUA ETA LEGEZKOTASUN PRINTZPIOA

- Araudiak edo erregelamenduak: aniztasuna (hainbat arau mota aipamen soil baten mende) .

- Araudi-ahalmena: arauak sortzeko ahalmena; ez da ahalmen betearazlearekin berdindu behar.

- Erregelamendu-ahalmena

- Gobernua eta araudi-ahalmenaren jabe (Espainiar Konstituzioaren 97.artikulua): Konstituzioaren eta legeen arabera gauzatzen dena → legeen arabera gauza badaiteke araudi-ahalmena horrek esan nahi du legeek bestelako erakundeei eman diezaiketela araudiak sortzeko ahalmena.
- ⇒ Gobernua ez da araudi-ahalmena duen bakarra; Gobernuako Presidenteak eta Ministroek badira araudi-ahalmenaren jabe

- Jatorrizko araudi-ahalmena (Konstituzioak esleitzen duena): Gobernuena

- Araudien ezaugarri oinarrizkoena: legearen mende diren arauak izatea.

⇒ Legearen lehentasuna: legeak beti mugatzen du araudia, Konstituzioaren arabera ezinbestekoa ez denean ere

- **Araudi-ahalmenaren eremua:** legeek baldintzatzen ez duten guztia izango da.

→Araudiek ez dute alde zuzenetik legearen beharrik

⇒ Lege-erreserbarik ez dagoenean, legerik gabe ere araudiak sor daitezke

- **Araudi motak:**

- Araudi independentea edo lotu-gabea: legerik ez dagoenean sortzen dena.
- Araudi betearazleak edo legearen arabekoak: lege batek arautzen duena bilakatzen dutenak